## AIARA

540

**Luiandoko UE-5 egikaritze unitatean urbanizazioaren kontserbazio batzordearen eta bertako estatutuen eraketari hasierako onespena ematea.**

Aiarako Udalak, 2010eko urtarrilaren 21eko ohiko bilkuran, erabaki du hasierako onarpena ematea Luiandoko UE-5 egikaritze unitateko kontserbazio batzarraren eta Sociedad Integral de Servicios Urbanísticos 2004, S.A.k (SIGUSA) aurkeztutako estatutuen eraketari. Azken hasierako onespena baldintza baten pean dago, hain zuzen, estatutuen sarreran eta 2., 4. eta 25. artikuluetan agertzen den hamabost urteko iraupenaren aurreikuspena aldatzea, eta ipintzea 99 urtekoa. Bi agiriok hamabost eguneko epean jendaurrean jarriko dira iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, nahi duenak espedientea eskuratu eta egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzan.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2010eko urtarrilaren 25a.– Alkatea, AINHOA CAMPO ARENAZA.

## AYALA

540

**Aprobación inicial de la Constitución de la Junta de Conservación de la urbanización en la Unidad de Ejecución UE 5 de Lulaondo y de sus Estatutos.**

En Sesión Ordinaria celebrada el 21 de enero de 2010 el Ayuntamiento de Ayala ha acordado aprobar inicialmente la Constitución de la Junta de Conservación de la urbanización en la unidad de ejecución UE5 de Lulaondo y aprobar inicialmente los Estatutos, presentados por la mercantil Sociedad Integral de Servicios Urbanísticos 2004, S.A. (SIGUSA), condicionando esta última aprobación inicial a que se modifique la previsión de una duración de quince años en la introducción, y en los artículos 2, 4 y 25 de los Estatutos y se sustituya por una duración de 99 años. Sometiéndose ambos documentos a información pública por plazo de quince días hábiles, contado a partir del día siguiente al de la inserción de este anuncio en el BOTHA, para que cualquier persona, pueda acceder al expediente y realizar alegaciones.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Respaldiza a 25 de enero de 2010.– La Alcaldesa, AINHOA CAMPO ARENAZA.

## BARRUNDIA

406

**Udal Kiroldegiaren erabilera arautzen duen arauteglari behin betiko onarpena ematea.**

Udal honek, 2009ko azaroaren 16ko bilkuran, ondoren adierazten den arautegiri hasierako onarpena eman zion. Espediente hori jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartzen da. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 49. artikuluan eta toki araubidearen esparruan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratuko 56. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, osorik argitaratu da indarrean jar dadin.

### UDAL KIROLDEGIAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ARAUTEGIA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Titulua.-

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 84. artikuluak onartzen dituen ahalmenez baliatuz eman da arautegi hau, artikulu horren arabera toki erakundeek ordenantza eta bandoen bidez herritarren jardueran esku hartu baitezakete.

Hori betez, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen Legeko 49. artikuluaren prozedurari jarraiki, zerbitzuaren prestazioa arautuko duen arautegia ezartzea onartu da.

2. artikulua. Izaera juridikoa.-

Arautegi honek ordenantzaren izaera juridikoa du, hau da, herri erabilerari atxikitako udalaren jabari publikoko ondasunak arautzen dituen ordenantzaren izaera, 25.2 m) artikuluan ezarritakoa betez.

3. artikulua.

1. Barrundiko Udal Kiroldegia Ozaetan dago, Camino de Elgea kaleko 10. zenbakian. Honakoak dira xedeak:

a) Kirol erabilera: heziketa fisikoa eta kirola sustatzea.

b) Bestelako erabilerak: soilik kirolekoak ez diren beste erabilera batzuk ere gara daitezke, gizarteari eta kulturari lotutako edozein jarduera, adibidez.

2. Instalazioa ezin da erabili hurrengo xedeetarako:

a) Gizartearen aurkako erabilerak edo instalazioaren xedearekin bateragarriak ez direnak.

## BARRUNDIA

406

**Aprobación definitiva del Reglamento Regulador de la utilización del Polideportivo Municipal.**

Habiendo sido aprobado inicialmente por este Ayuntamiento en sesión celebrada el día 16 de noviembre de 2009, el Reglamento que a continuación se detalla, y no habiéndose presentado reclamaciones durante el período de su exposición al público, queda definitivamente aprobado. Por lo que a efectos de lo establecido en el art. 49 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local y art. 56 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen local, se lleva a cabo su publicación íntegra para su entrada en vigor.

### REGLAMENTO REGULADOR DE LA UTILIZACIÓN DEL POLIDEPORTIVO MUNICIPAL

CAPÍTULO I.- DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1°. Título.-

Este Reglamento se dicta en virtud de las facultades otorgadas por el artículo 84 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases del Régimen local, que establece que las Entidades Locales podrán intervenir en la actividad de los ciudadanos a través de Ordenanzas y Bandos.

En cumplimiento del mismo, y siguiendo el procedimiento del artículo 49 de la Ley de Bases de Régimen Local, se acuerda establecer el presente Reglamento que regule la prestación del servicio.

Artículo 2°. Naturaleza jurídica.-

Este Reglamento tiene naturaleza jurídica de Ordenanza reguladora de bienes de dominio público municipal adscrito a los usos públicos que le son propios, de acuerdo con lo previsto en el artículo 25.2 m).

Artículo 3°.

1. El Polideportivo del Municipio de Barrundia se ubica en Ozaeta, calle Camino de Elgea n° 10 y está adscrito a las siguientes finalidades:

a) Usos de naturaleza deportiva: Fomento de la educación física y el deporte.

b) Otros Usos: Se podrán desarrollar otros usos no estrictamente deportivos, tales como, cualquier actividad social y cultural.

2. Se prohíbe la utilización de la instalación para los siguientes usos:

a) Los usos antisociales o incompatibles con la naturaleza de la instalación.

b) Instalazioetan kalteren bat eragin dezakeen edozein kirol jarduera, hala nola: zesta-punta, erremontea, pala handia, hockeya eta beste batzuk.

3. Kiroldegiak honako instalazioak ditu:

- Pilotalekua, saskibaloi-pista, futbito-pista,..
- Aldagelak, zerbitzuak, etab.

4. artikulua. Erabiltzaileak.-

1. Kiroldegiko erabiltzailetzat joko dira udalerrian erroldatutako biztanle guztiak.

Erroldatuta dagoen erabiltzaileak hala eskatzen duenean, udalak erabiltzailearen txartela egingo dio. Txartel honek urtebeteko iraupena izango du.

2. Halaber, eta beharrizanen arabera, erabiltzailetzat joko dira udalerrian erroldatuta egon ez arren jardueretan parte hartzen duten pertsonak eta udalak edo berariaz baimendutako pertsona fisiko edo juridikoek antolatzen dituzten ekitaldietara ikusle modura doazenak.

3. Deskribatu den ohiko erabilera udalak antolatutako jardueren eta erabileren programazioa zehaztu ostekoa izango da, baita udal elkarte, klub edo taldeek udalaren baimenarekin antolatzen dituztenen ostekoa ere.

5. artikulua. Prestazioak.-

Erabiltzaileek honako prestazioak jasotzeko eskubidea izango dute:

1. Kirol arloko prestazioak:

a) Pertsona bakoitzak instalazioari lotutako kirol jarduera egin dezake.

b) Jarduerak taldeka edo multzoka egin daitezke.

c) Aldagelak eta dutxak erabili ditzakete, baldin eta aldez aurretik horien gaineko tasa ordaindu badute. Zerbitzuak emateko eta kultura eta kirol jarduera gauzatzeko tasak arautzen dituen Ordenantzan zehazten da tasa hori.

2. Beste prestazio batzuk:

a) Kultura jarduerak, hezkuntza jarduerak (Udalekuak) eta bestelakoak egin daitezke.

b) Jaiak ospa daitezke (Erretiratuaren Eguna, udalerriko jaleguna, Euskararen Astea, etab.).

6. artikulua. Instalazioa erabiltzeko egutegia eta ordutegia.-

1. Udal kiroldegiaren ezaugarriak aintzat hartuta, instalazioa etengabe egongo da irekita.

2. Dena den, debekatuta dago instalazioan sartzea, ekitaldiak egin edo zerbitzuak eman aurretik horietarako baliabideak eta ekipoak instalatu behar direnean eta, betiere, Alkatearen Ebazpen arrazoituaren bidez horrela ezartzen denean.

II. KAPITULUA.- UDAL KIROLDEGIAREN FUNTZIONAMENDUA.

7. artikulua.

Instalazioak honako funtzionamendu araubidea izango du:

1. Udalak sustatzen dituen ekitaldien edo jardueren programazioek lehentasuna izango dute. Instalazioan kartelak jarriko dira horrelakoren bat egin aurretik. Era berean, lehentasuna izango dute Kontzejuen jarduerek; egoitza udalerrian duten gizarte eta kultura arloko elkarteen, kirol kluben eta taldeen jarduerek; eta udalaren baimena duten pertsona juridikoen jarduerek.

2. Udalaren erabilerarako programazioa ezarri ostean, erabiltzailearen txartela duten herritarrek ere instalazioa erabili ahal izango dute (ohiko erabilera).

Talde batek instalazioa erabili nahi duenean baldintza hori betetzen dela ulertuko da gutxienez horietako batek aipatutako txartela duenean.

Talde batek baino gehiagok aldi berean erabili nahi badute instalazioa, eta ezin bada instalazioaren erabilera bateragarri egin, heldu den lehenak izango du lehentasuna. Honek, dena den, gehienez ordu eta erdi izango du instalazioa erabiltzeko.

3. Instalazioa aldian behin edo noizean behin erabiltzen duten baina udalerrian erroldatuta ez dauden pertsonek soilik erabili ahal izango dute instalazioa libre dagoenean, eta gehienez ordu eta erdian zehar.

b) La práctica de cualquier actividad deportiva que pueda causar daño a las instalaciones, tales como, cesta punta, remonte, pala larga, hockey y otros.

3. El polideportivo consta de las siguientes instalaciones:

- Pista de frontón, baloncesto, futbito,..
- Vestuarios, servicios, etc.

Artículo 4º. Usuarios.-

1. Tendrán la consideración de usuarios del polideportivo todos los vecinos empadronados en el municipio.

A solicitud del usuario empadronado, se expedirá por el Ayuntamiento un Carnet de Usuario, que tendrá una validez de un año.

2. Podrán tener, además, la consideración de usuarios según las necesidades, las personas que sin ser empadronados en este municipio, acudan a la práctica de actividades y las que acudan en concepto de público en actos organizados por el Ayuntamiento o personas físicas o jurídicas, a tal efecto autorizadas.

3. El uso habitual descrito se establece como de orden posterior a la programación de las actividades y usos que organice el Ayuntamiento así como las asociaciones, club o colectivos municipales con autorización previa del Ayuntamiento.

Artículo 5º. Prestaciones.-

Los usuarios tendrán derecho a las siguientes prestaciones:

1. Prestaciones de tipo deportivo:

a) La práctica a título individual de las actividades deportivas de acuerdo con la naturaleza de la instalación.

b) La práctica de actividades por grupos o equipos.

c) El uso de los vestuarios y duchas previo pago de la tasa que regula la Ordenanza Reguladora de tasas por la prestación de servicios y por la realización de actividades culturales y deportivas.

2. Otras prestaciones:

a) Desarrollo de actividades culturales, educacionales (Udalekus), y de otro tipo.

b) Celebración de fiestas (Día del jubilado, fiesta del municipio, Euskararen Astea, etc.).

Artículo 6º. Calendario y horario del uso de la instalación.-

1. Dadas las características del polideportivo municipal, la instalación permanecerá abierta de forma permanente.

2. No obstante, se prohibirá el acceso a la instalación cuando, por necesidades de actos o prestación de servicios, sea necesario previamente equipar la instalación con los medios y equipos necesarios para el desarrollo de los mismos, y siempre que por Resolución de Alcaldía así se establezca justificadamente.

CAPÍTULO II.- DEL FUNCIONAMIENTO DEL POLIDEPORTIVO MUNICIPAL.

Artículo 7º.

Se establece el siguiente régimen de funcionamiento de la instalación:

1. Se establece como uso preferente a cualquier uso, las programaciones de actos o actividades promovidas por el Ayuntamiento, que se anunciará previamente mediante carteles en la propia instalación. Gozarán también de esta preferencia el desarrollo de actividades de los Concejos, Asociaciones socioculturales, clubes y grupos deportivos radicados en el municipio, así como otras personas jurídicas, que previamente hayan sido autorizadas por el Ayuntamiento

2. Como uso habitual y en un orden posterior a la programación del uso por el Ayuntamiento, podrá ser utilizado por los vecinos/as vecinas poseedores del carnet de usuario.

Se entenderá cumplido el requisito cuando la instalación se esté utilizando por un grupo, siempre que al menos uno disponga del correspondiente carnet.

De concurrir varios a la vez y de no ser posible compatibilizar el uso de la instalación, tendrá preferencia el que primero haya llegado, limitándose el tiempo de uso de la instalación a una hora y media.

3. Los usuarios periódicos o esporádicos de las instalaciones, no empadronados en el Municipio, sólo podrán utilizar la instalación en el caso de que se encuentre libre, y como máximo durante una hora y media.

Instalazioa udalerrian erroldatuta ez dagoen pertsonaren batek hartu badu baina, aldi berean, txartela duten erabiltzaileek ere hartu nahi badute, lehenengoek gehienez 10 minutu izango dituzte jarduera amaitzeko.

8. artikulua.- Erabiltzaileen identifikazioa.-

1. Udalerrian erroldatutako erabiltzaileak identifikazio txartela izango du.

2. Udalak baimendutako jardueraren bat garatzean agiri ofiziala erabiliko da frogagiri moduan.

9. artikulua.- Instalazioko argiteria.-

Kiroldegiak programatzaile bat du instalazioak argitzeko.

Pizteko mekanismoari eragiten zaionean ordubetez egongo da argia piztuta. Denbora hori igaro baino bost minutu lehenago seinale akustiko batek abisatuko du argia itzali egingo dela; beraz, berriz eragin beharko zaio mekanismoari.

Baina instalaziotik lehenago joango bada, erabiltzaileak argiak itzaliko ditu.

10. artikulua. Erantzukizunak.

1. Pertsona fisikoek eta, oro har, instalazioa erabiltzeko baimena duten erakundeek legezko ordezkaria den pertsona fisikoa izendatu beharko dute instalazioan egindako jarduerengatik sor daitezkeen erantzukizunak bere gain har ditzan.

2. Eragileei egotziko zaie pertsonen kontra izan diren kalte guztien erantzukizun juridikoa, baita bertan dauden ikusleen ekintzen edo omisioen ondoriozkoak ere.

3. Partiden eta beste edozein jardueraren antolatzailea izango da gertatzen diren kalte pertsonalen erantzulea.

4. Instalazioa kulturako, kiroleko edo antzeko arloren bateko erakundeek edo elkarteek erabiltzen badute, eta partaideen, jokalarien edo ikusleen portaeraren ondorioz arazoak izan badira, hau da, instalazioak kaltetzen edo hondatzen badira, udalak arazo horien gastuak bidaliko dizkie eragileei. Izan ere, erabilera deuseztatu ahal izango die.

5. Udalak erabiltzailearen txartela kendu ahal izango dio instalazioa behar ez bezala erabiltzen duen edo instalazioan kalteren bat egin duen pertsonari.

11. artikulua.- Jarduerak egitea.-

1. Aldizka edo behin eta berriro egiten diren jardueretarako baimenak bateratu beharko dira; berdin da jarduerak udalak edo udalerriko beste talderen batek antolatu dituen.

2. Udalak programatutako jarduerek lehentasuna izango dute; ondoren, baimena lehenago lortu duen aldizkako edo aparteko jarduerak izango du lehentasuna. Hala ere, interesdunek programazioa aldatzea adostu dezakete.

12. artikulua.

1. Pabilioiaren erabiltzaileek egoki zaindu behar dituzte horren instalazioak. Kalteren bat edo hondatzeren bat ikusiz gero udalari horren berri eman beharko diote.

2. Txartela duten erabiltzaileek urtero berrituko dituzte, otsailean, egoki diren egiaztagiriak.

13. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak.-

1. Erabiltzaileek nahitaez bete behar dituzte hurrengo arauak:

- Instalazioa behar bezala erabiliko dute, horren ezaugarriak kontuan hartuta. Ez dute instalazioan kalterik eragingo.

- Beste erabiltzaileak errespetatuko dituzte, denak batera egoteko behar diren neurriak hartuz.

14. artikulua. Instalazioaren erabiltzaile izateari uztea:

1. Arautegi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez direla frogatzen bada, ebazpen edo erabaki bidez kenduko zaio erabiltzaileari izaera hori.

2. Erabiltzaileak beste erabiltzaile batzuekin batera bizikidetza arazoak dituenean ere kenduko zaio.

De encontrarse ocupada la instalación por persona no empadronada en el Ayuntamiento y darse la circunstancia que concurren en un determinado momento usuarios con carnet, los primeros deberán cesar en la actividad en un periodo de tiempo máximo de 10 minutos.

Artículo 8°. Identificación de los usuarios.-

1. El usuario empadronado en el Ayuntamiento dispondrá de la tarjeta identificativa correspondiente.

2. El desarrollo de cualquier actividad que haya sido autorizada por el Ayuntamiento, se acreditará con el documento oficial correspondiente.

Artículo 9°.- Sistema de alumbrado de la instalación.-

El polideportivo cuenta con un dispositivo para la iluminación a través de un programador.

Una vez accionado el mecanismo de encendido, permanecerá activado durante una hora, cinco minutos antes avisa a través de señal acústica el fin del encendido, por lo que de proseguir la actividad, deberá accionar de nuevo el mecanismo.

De abandonarse la instalación antes, el usuario accionará el mecanismo de apagado de la iluminación.

Artículo 10°. Determinación de responsabilidades.

1. A los efectos de determinar la asunción de responsabilidades que puedan originarse en relación con las actividades realizadas por personas jurídicas y, en general, entidades a las que se conceda permiso de utilización de la instalación, éstas habrán de designar una persona física que ostente su representación legal.

2. Se imputará a los causantes toda responsabilidad jurídica, por todos los daños o perjuicios que pudieran ir en detrimento de personas o producidos por acciones u omisiones del público asistente.

3. El organizador de partidos y cualquier otra actividad será responsable de cualquier daño personal que se produzca.

4. Cuando la instalación sea utilizada por entidades, asociaciones culturales, deportivas o similares, el Ayuntamiento, en su caso, dará traslado de los gastos originados por las anomalías que se sucedan debido al comportamiento de sus participantes, jugadores o público, que ocasione menoscabo o deterioro de las instalaciones, a los causantes, pudiendo proceder a la rescisión en lo referido a uso.

5. El Ayuntamiento podrá retirar el carnet de usuario a aquella persona que asimismo haga un uso inadecuado de la instalación o haya causado daños o deterioros.

Artículo 11°. Realización de actividades.-

1. Habrá de compatibilizarse el otorgamiento de autorizaciones para el desarrollo de actividades que se realizan de forma regular o repetitiva, bien sean organizadas por el propio Ayuntamiento u otros colectivos radicados en el municipio.

2. Tendrán preferencia en primer lugar las actividades programadas por el Ayuntamiento, y después la actividad regular o extraordinaria autorizada con mayor antelación, sin perjuicio de la posibilidad que las partes interesadas lleguen al acuerdo de variar la programación.

Artículo 12°.

1. Los usuarios del pabellón deberán observar en todo momento una adecuada utilización de las instalaciones que configuran el mismo, debiendo poner en conocimiento del Ayuntamiento aquellas deficiencias o deterioros que pudieran apreciar.

2. Los usuarios del carnet deberán formalizar las renovaciones de sus respectivas credenciales en el mes de febrero de cada año.

Artículo 13°. Obligaciones de los usuarios.-

1. Los usuarios están obligados al cumplimiento de las siguientes determinaciones:

- A utilizar la instalación de manera adecuada a sus características, sin causar ningún daños.

- Guardar el debido respeto a los demás usuarios, observando la compostura necesaria para la buena convivencia.

Artículo 14°. Pérdida de la condición de usuario de la instalación:

1. La condición de usuario se perderá a consecuencia por Resolución o Acuerdo cuando se verifique que no cumple las condiciones establecidas en el presente Reglamento.

2. Cuando un usuario origine problemas de convivencia con los demás usuarios.

3. Baina erabiltzaile izaera kenduko zaion ala ez ebatzi baino lehen, betebeharrak bete ez dituela ohartaraziko zaio. Behin bakarrik ohartaraziko da.

III. KAPITULUA.- IKUSKATZEA

15. artikulua. Instalazioen ikuskatzea eta instalazioaren funtzionamendua.-

1. Udalak, alkatearen bitartez, ikuskatuko ditu instalazioak; eta arautegi honetan ezarritakoa betez erabiltzen dela egiaztatuko du.

2. Edozeinek eman dezake betetzen ez diren betebeharren berri. Orduan, ez-betetze horiek zuzentzeko neurriak hartuko dira.

3. Instalazioa behar ez bezala erabiltzen dela ikusiz gero arduradunari horren berri emango zaio eta, honek, bidezko neurriak hartuko ditu. Alabaina, arduradunak jakinarazitakoari jaramon egiten ez badio zehapen espedientea instruituko da. Horrela ezarri da abuztuaren 4ko 1398/1993 EDn (Eskumen Zehatzailea Gauzatzeko Prozedura Araudia onartu duena) eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 80 eta 127 artikuluetan eta hurrengoetan.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau udalak behin betiko onartzen duenean jarriko da indarrean. Testu osoa ALHAOn argitaratuko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 65.2. artikuluan ezarritako epea igaro ostean.

Arautegi honen onarpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluak ezartzen duen bezala.

Aurrekoez gain egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

Ozaetan, 2010eko urtarrilaren 18an.– Alkatea, JOSÉ FÉLIX URIARTE URIARTE.

3. En todo caso, se le advertirá en una ocasión del incumplimiento de sus obligaciones antes de resolver sobre la pérdida de la condición de usuario.

CAPÍTULO III.- INSPECCIÓN

Artículo 15º. Inspección de las instalaciones y del funcionamiento de la instalación.-

1. El Ayuntamiento a través del Alcalde dirigirá la inspección de las instalaciones y la correcta utilización de la misma de acuerdo con el presente Reglamento.

2. Cualquier persona pondrá en conocimiento del incumplimiento de las obligaciones que se produzcan y se adoptarán las medidas precisas para subsanarlas.

3. Advertido un uso inadecuado de la instalación, se pondrá en conocimiento del responsable para que adopte las medidas y de hacer caso omiso, se instruirá el expediente sancionador de acuerdo con lo previsto del R.D. 1398/1993, de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Procedimiento para el Ejercicio de la Potestad Sancionadora, y los artículos 80, 127 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIÓN FINAL

Este Reglamento entrará en vigor una vez aprobada definitivamente por el Ayuntamiento y publicado su texto completo en el BOTHA, transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Contra la aprobación definitiva del presente Reglamento se podrá interponer por los interesados recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la publicación de este anuncio, de conformidad con el artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime pertinente.

En Ozaeta, a 18 de enero de 2010.– El Alcalde, JOSÉ FÉLIX URIARTE URIARTE.

## KANPEZU

464

### Zerga ordenantzen aldaketa behin betiko onartzea

Ordenantza hauek jendaurrean jartzeko epea igaro da: zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzaren behin-behineko erabakia, "Kanpezu enpleguaren alde" programaren baitan langileak kontratatzeagatiko pizgarriak jaso ahal izateko baldintzak arautzen dituen ordenantza, Kanpezuko hirigintza baldintzak arautzen dituen ordenantza, jaiotzak eta erroldak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza sortzea, ezkontza zibilak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen ordenantza eta Kanpezuko udal etxebizitza tasatua arautzen duen ordenantza, udalbatzak 2009ko urriaren 6an egindako bilkuran onartutakoa. Horiek horrela, ez denez epe horretan erreklamaziorik aurkeztu, erabaki hori behin betikotzat joko da, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16.3 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49.c artikuluan jasotzen dutenaren arabera.

Aipatutako foru arauak 16.4 artikuluan eta TEOLek 70.2. artikuluan xedatutakoa betez, oso-osorik ematen dira argitara aldaketen testuak eta ordenantza berrien testuak:

## CAMPEZO

464

### Aprobación definitiva de la modificación de Ordenanzas Fiscales

Transcurrido el plazo de exposición al público del acuerdo provisional de modificación de la Ordenanza reguladora de Tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas; de la Ordenanza reguladora de las condiciones para acceder a incentivos por la contratación de personal del denominado programa "Campezo por el empleo"; de la Ordenanza reguladora de las condiciones de urbanización del municipio de Campezo; así como la creación de la Ordenanza reguladora de subvenciones para el fomento de la natalidad y el empadronamiento; de la Ordenanza reguladora del precio público por matrimonios civiles y de la Ordenanza municipal reguladora de la vivienda tasada municipal de Campezo, adoptado por el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria celebrada con fecha 6 de octubre de 2009, y no habiéndose presentado dentro del mismo reclamación alguna, dicho Acuerdo queda elevado a definitivo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 16.3 de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales y 49.c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 16.4 de la precitada Norma Foral y 70.2 de la LRBRL, se publican íntegramente los textos de las modificaciones y de las nuevas Ordenanzas: